

GEROAK ESAN BEZA...

**MIREN JOSUNE
ARIZTONDO**

**HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDE OHIA**

EUSKARAREN OINARRIZKO LEGEA (1982), 40 URTEKO HIZKUNTZA POLITIKEN FUNTSA

Sasoi bateko euskaldunen artean, asko ginen gure esfortzuen euskarri eta pizgarri izango zen euskararen lege baten zain. Orduko gazteok ere adanismoa barneratua genuen, uste izanda gure aurretik ez zela izan inor, ez zela egon ezer, nahiz eta *Eguna* edo *Euzko Ikastola Batza* eta, batez ere, *Emakume Abertzale Batza* zerbait baino gehiago izanak ziren Euskal Herrian zein erbestean.

Diktaduren helburu eta marka gaiztoenetakoa da oroimen demokratiakoaren ukazioa ezartzea eta, bizikidetzaren aztarnak ezabatuz, gizartea zerotik abiatzera eramatea. Hori ikasi dugulako dakigu euskararen biziraupena, eta are gehiago biziberritzea, aurrekoek urratutako bideari heldu eta jauzi sendoak eginez joango dela taxutzen herri-agintariek eta gizarte-ekimenak elkarlanerako gaitasuna duten artean. Badakigu sasoi bakoitzean euskara sustatzeko egindako lana aztertu

eta hobetzea egokituko zaiola hurrengo belaunaldiari. Zirkunferentzia gainditzen duen kiribil gisa irudikatu daiteke euskararen normalizazioa, oinarri eta irizpideak ongi asmatuz, amaigabe bide berri eta berritzailez janzten den kiribila, beti ezaguna eta beti berritzailea, horixe baita erronka. Ikuspegi horrek narama, hain justu, euskararen egoeraz galde egin zaidanean, azken 40 urtetan euskararen jarraipenerako egin den eta aurrera begira egiten ari den bidea ekartzera lerro hauetara.

Euskararen Oinarrizko Legea begirada luzekoa da. Printzipioak, helburuak eta eremu estrategikoen jardun-lerro nagusiak argi ezarri eta etorkizunerako garapen eta egokitzapen desberdinetarako funts baliagarria izateko sortzen diren legeei dagokien eran. Bere oinarriak argiak dira: i) euskara da gure erkidegoaren nortasunaren erakusgarri nabarmenena eta behinena; ii) Euskal Herriaren berezko hizkuntza da euskara eta, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala; iii) herritarrak dira hizkuntza-eskubideen jabe eta Euskal Herri-Agintaritzenak dira beharrak.

ARDATZ EGITURATZAILEAK. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (1998)

Jaurlaritzak berehala heldu zion lege honen mandatuari. Euskararen Aholku Batzordea eratu zuen, irizpideak bateratu eta egitarau biltzaileak jorrazteko bidelagun estrategikoa izateko. Legeak berak dioen bezala, “*euskararen erabilpena arauzkoteko lana errazteko*”.

Hizkuntza Politikarako Idazkari-tza Nagusiak eman zituen lehen urratsak: 1986ko zentsuko datuak oinarri hartuta argitaratu zuen 1989an *Euskal Autonomia Erkidegoko Soziolinguistikazko I. Mapa*. Baina bistakoa zen euskararen ezagutzak eta erabilerak azterketa dinamikoagoa eskatzen zutela eta, gainera, euskararen biziraupena helburu hizkuntzaren lurralde osoa kontuan hartzea ezinbestekoa zela. Eta 1991n egin zen inkestaren emaitzak 1995ean argitaratu ziren *Euskal Herriko I. Soziolinguistikazko Inkesta. Euskararen Jarraipena* izenburupean. Harrez gero, 5 urteroko ikerlan honek Euskal Herrian garaturiko hizkuntza politiken emaitzak azaltzen ditu euskararen ezagutza, erabilerak eta hareriko jarrerak adinez adin eta tokiz toki zehaztuta. Gainera, 30 urteko bilakaerak erakusten duen panorama oso baliotsua da euskara bultzatzeko politika eta neurrien ahulezi eta indarguneen bila-kaera sakontasunez aztertzeke.

Euskararen Aholku Batzordearen eta Jaurlaritzaren lehen ahaleginetako bat izan zen ordura arte landutako ekimenen barne-logika aztertu eta, ahal zen neurrian, jardun-lerro biltzaileetara ekartzea. Horretarako ezinbestekoa zen hizkuntza-politiken eraginkortasuna ebaluatu eta euskararen normalizazioa eskuratzeko jarraitzeko plan bat egitea: i) arazoak aurreikusi ondoren, epe motzeko eta luzeagoko helburuak adostu, egitarauak egokitu eta ebaluazio-irizpideak zehazten joateko; ii) euskara biziberritzeko aurrekontuak aztertu eta lehentasunak finkatzeko; eta, iii) herri-erakundearen arteko koordinazioa hobetu eta euskalgintzan ari ziren enpresa eta herri-elkarteekin harremana bideratzeko.

Erronka-tamaina horren eraginkortasunak ezinbestekoak zituen prozesu partehartzailea eta ekintzailea. Sasoi hartako AMIA analisi-metodologia berritzailea erabiltzeko erabakiak batetik eta hizkuntza politika integratzaileak halaberrez eskatzen zuen partaidetza anitzak bestetik eraman zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Euskararen Aholku Batzordea eraldatzea. Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea (HAKOBA) sortu zuen, euskalgintzarako giza eta diru-baliabide publikoak elkarren artean landu eta, ahalik eta etekinik eraginkorrena lortzeko helburuz. Erakunde arteko koordinazio-gune berri honen sorrera-kideak Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta EAEko hiru hiriburuetako udalak izan ziren¹.

1. Bigarren fasea batean Eudel eta UEMA gehitu zitzaizkien.

Aurrekari hauekin hasi ziren 1996an *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia* eraitzeko lanak, hurrengo hamar urtetarako erronka nagusiak erabaki eta, batez ere, adosteko asmoz. Hiru jardun-esparrutara ekarri ziran 17 arlo edo eremu oinarrizkoak. Hona hemen:

Euskararen geroratzea. Irakas-kuntza; helduen euskalduntze-alfabetatzea; euskararen familia-jarraipena; corpusa eta kalitatea; euskararen egoera Nafarroan zein Iparraldean.

Euskararen erabilera. Euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan; administrazioak; aisia, kirola; erlijioa; Euskal Herriko gune soziolinguistikorik euskaldunenak.

Komunikabideak eta kultura. Liburugintza; irrati, telebista eta prentsa idatzia; publizitatea; kultur ekoizpenak; informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak.

Aldi berean, **corpus-plangintzan eta hizkuntzaren industrian** aurreikusituen ziren eginkizunak Euskaltzaindiarekin hitzartu eta euskalgintzan ari ziren beste erakunde eta elkarteekin batera, terminologian, toponimian, oinarrizko erreferentzia-obretan, euskarazko katalogazioan edota euskara lantzeko hizkuntzaren industrien alorretan urrats esanguratsuak eman ziren.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia bera bezain garrantzikoa izan zen berau burutzeko egindako bidea. Hain zuzen ere, azken hamarkadan euskararen aldeko neurriek izandako eragina eta jardun-esparruz esparruko indarguneak eta ahuleziak zehaztu zituen Euskararen Aholku Batzorde eraberrituak, urrats eta gogoeta ugari partekatuz: eztabaidarako oinarrizko txostenak, txostenei oharrak, egitarau nagusien eta giza eta diru-baliabideen azterketa, euskararen atzerakadak eta aurrerakadak, indarguneak eta ahuleziak, susperraldirako proposamenak, proposamen horien eraginkortasuna, bideragarritasuna eta onargarritasuna, irizpideen finkapena, eginbeharrekoen lehentasuna eta abar. 34 aditu ibili ziran txostenak prestatu eta ohargile lanetan horretarako eratu ziren 9 Batzorde-atal propioetan.

Bereziki aipatzekoak dira Lege Garapeneko eta Jarraipeneko Batzorde-atalak: bata, Planaren helburu estrategikoek eta, batez ere, egitasmo-proposamenek ekarri zituztekeen arau-moldapen beharrak aztertzeko eta, bestea, Planaren ebaluazio-adierazleak finkatzeko. Bi urte eta gero, 1998an, Batzorde Osoak aho batez onartu eta Gobernu Kontseiluak lehenik eta Eusko Legebiltzarrak gero, eman zioten onepena.

NAZIOARTEKOTZEA. EBALUAZIOA. EUSKARA 21 ... ETA GEHIAGO (2005)

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia euskaingintzaren jardunerako eta elkarlanerako dokumentu irekia da, ebaluatuz egokitzeko sortua, herrigintzan eta gizartegintzan diharduten sektore eta giza-taldeen ekarpenek aberastuko dutena. Hortaz, oinarriak eta irizpideak bere hartan jarraitu arren, egindakoa aztertuz, egitekoa hobetzen joatea da erronka, lehentasunak berraztertu eta birdefinitzea, lan-ildoak birmoldatzea, eta, azken finean, hizkuntz politikari bultzada berri bat ematea. Horixe da, ez gehiago eta ez gutxiago, ebaluazio kabal baten funtsa.

Euskal Herriko hizkuntza politikak ezinbestekoa du kontsentsu sozial eta politiko ahalik handi eta zabalena lortzea, etengabe berriztatu eta hedatu behar dena. Bizikidetzan eraginkortasunez eta egonkortasunez aurrera egitea gizartearen aniztasunaren tamainako adostasuni dago atxikita. Gainera, askoren esfortzuz lortzen den hori ez da behin eskuratu eta betirako gelditzen, etengabe elikatu behar da bizirik eustea nahi bada.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia berrikustearen eta berritzearen helburua da adostasun horren bila egin beharreko hausnarketa leiala, eztabaidari beldurrik ez diona, XXI. mendea aurrera doan honetan bere edukia findu eta egokitzeko. Horretarako jarri zuen Jaurlaritzak abian Euskara 21 prozesua 2006.urtean, diskurtsoaren

eremuan ez ezik, esparru praktikoan ere eragina izan duena, aurreko lana ebaluatuz hurrengo urteetarako lehentasunak erabaki eta praktikara eramatea, lehen mailako jardunbide biurtuz. Dokumentuek xehetasun osoz erakusten dutenez lan mardul eta garrantzitsu hau, jardunbide nagusiak biltzeko ahalegina egin dut ondoko lerroetan.

Nazioartean eta euskararen lurralde-eremuan: i) Euskarazko kultur produktuak eta sortzaileak nazioartertzeko *Etxepare Institutua* sortzen da; ii) itzultzaile automatikoa (euskara-gaztelania-ingelesa) jartzen da abian eta telefono mugikorretako menua euskaraz ere izatea lortzen da; iii) Iparraldeko herri-aginteekin, urtez urteko kolaboraziotik haratago, 2007an hiru urteko lankidetzeta markoa adostuz.

Euskararen zeharkako-izaera eraginkorki gauzatzeko ekimen-multzooan: (i) Jaurlaritzak onartu behar dituen arau guztietan HPSren txosten prezeptiboa ezartzen da; (ii) BIKAIN euskararen kalitate ziurtagiria sortzen da Euskalitekin elkarlanean eta EFQM kalitate metodologija jarraituz; iii) enpresetan LANHITZ programa eta Bikain ziurtagiria sustatzen dira Euskadiko empresa-elkarte eta sindikatuarekin zein Euskadiko Kutxen konfederazioarekin elkarlanean; iv) 2008an onartzen da Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko dekretua.

Sentiberatzearen arloan aipagarrienetako bat UKAN birusa jarri zen abian.

Euskaltzaindiaren eskutik eta beste hainbat erakunderekin elkarlanean euskararen corpusa estandarizatzeko, modernizatzeko eta normalizatzeko lanak planifikatu eta sustatzea, (Euskaltzaindia, Labayru, EHUko Euskara Institutua, UZEI... Euskalterm Eguneratu, 21 hiztegi terminologiko onartu, Euskara Institutua-ren corpusen Finantzaketa...)

Euskara Sustatzeko Ekintza plana (2011) onartu eta jardunbideok sendotzen eta zabaltzen joan dira ondorengo urteetan. Berrien artean, lagin gisa, hauek: i) Euskararen Agenda Estrategikoa diseinatu, onartu eta abian jartzea, Jaurlaritzako departamentu guztien arteko Batzorde Iraunkor baten eskutik jarraipena egiteko; ii) Eusko Jaurlaritzaren sail guztietan euskara unitateak sortzen dira, euskararen zeharkakotasunari dagokion eraginkortasuna ziurtatzeko; iii) Euskararen Adierazle Sistema abian jartzen da, Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikoaren eskutik Euskal Herriko herri-aginteekin hiruko batzorde exekutiboa osatuz.

MARKO ESTRATEGIKO BERRIRANTZ (2023)

Aro bakoitzak bere bidea badakar ere, Euskararen Oinarrizko Legea da inspiratzailea; hor diraute bere printzipioak, helburuak eta irizpide nagusiak. Euskararen Aholku Batzordea eraldatuz doa, kide berriz osatu eta egoera bakoitzari dagokion egokitzapen eta berritasunak proposatzen joateko. Halaxe doa

etengabe, egitasmo nagusiak elikatu eta onduaz gain, etorkizuna aurreikusi eta bere gogoeta estrategikoa propioa definitzeko. Hona hemen oraingo gogoeta- eta lan-ardatzak:

MISIOA. Euskal gizartea osatzen duten eragile publiko zein pribatu guztientzat marko eta bide-orria eskaintzea datoren hamarkadarako, euskal hiztunak sortu eta ahalduntzeko zein euskararen komunitatea sendotzeko, eta munduko hizkuntza aniztasunaren baitan gizarte justuagoa eta ekitatiboagoa eraikitzen laguntzeko. Aldian-aldian ebaluatua eta egokitua izanik, metodologia parte-hartzaile eta berritzailea baliatzea, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean.

NAHI ESTRATEGIKOA. Euskal testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea, gizarte ekitatiboa eta justua helburu.

IKUSPEGIA 2034. Hemendik hamar urtera aurreikusten eta bilatzen den begiradan: i) euskal hiztun aktibo gehiago ditugu gizarte esparru guztietan; ii) gurera iritsi diren bizilagun berriak euskarara hurbiltzen ari dira; iii) euskaraz bizitzeko aukera zabalagoak daude, hau da, arnagune funtzional eta geografiko gehiago ditugu; iv) euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa dute; v) euskararen transmisioa ziurtatuta dago.

BALIOAK: i) justizia soziala; ii) inklusioa; iii) lurraldetasuna; iv) zeharlerrotasuna; v) erakargarritasuna; vi) erantzukizuna; vii) egingarritasuna; viii) parte-hartze koordinatua.

Euskal giro inklusiboa sortzea da erronkaren muina. Giro fisikoa eta giro emozionala. Sasoi batean, euskararen prestigioa / euskal giroa, aintzatetsi beharrrak eta jakintza ororen munduan egoteko premiak eraman gintuen euskaldun asko hezkuntza formala lehenestera. Bestea, lagunartekoa, etxekoa, kalekoa,... berez joango zelakoan sendotzen, lehenak aurrera egin ahala. Orain bada-kigu euskara biziberritzeko eremu guztiak zaindu eta sendotu behar direla, berez ez dela euskara sendotuko eta, batez ere, herri erakundeak eta gizarte ekimenaren arteko elkarlanari eutsi behar zaiola, erabilera-eremu bat bera ere alboratu barik. Errealitateari itsatsita, itxaropena ez daki-gun arerio bihurtu. Asmoz eta jakitez.

BIBLIOGRAFIA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria: *Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena arauzkotzekoa.*

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 1998. Vitoria-Gasteiz

Euskararen Aholku Batzordea: Euskara 21 - Itun berri baterantz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 2009, Vitoria-Gasteiz.

Baztarrika, Patxi: Babeli gorazarre. Alberdania, 2009, Irun.

Euskararen Aholku Batzordea - Hizkuntza Politikarako Salburuordetza: Eta hemendik aurrera zer? Euskararen garapenaren iraunkortasuna. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 2016, Vitoria-Gasteiz

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila: Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua 2021, Vitoria-Gasteiz.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila: EAEko Administrazio Orokorraren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua 2021, Vitoria-Gasteiz.

PERU AJURIA, FOTÓGRAFO.

Colección de fotografías de agosto de 1983 con las que el autor inmortalizó unas inundaciones que cambiarían el futuro de Bilbao y Euskadi. 40 años después, son testigo del esfuerzo colectivo por la superación de un pueblo. Hermes ha recogido en este número 76 algunas de las imágenes que inmortalizó su cámara.



